

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Su hiltzaileek zer egiten zuten suaren geldialdiak?
2. Zer zuten zorionez laguntzeko?
3. Aroa alde zutena.

② UDABERRIA 5 Piarres

Su-tokirat zonbeit gizonekin jada helduak, haizkorak eskuan, zapartaka lanean ari ziren oihan-zainak. Suari berea eman behar zitzaion, tokiaren gainean suntsi zadien; eta gero, su hori behar bezala geldiarazi, inguruan lasterrez egiten zioten muga batean. Jainkoak itsaso handiari bezala, behar zitzaion erran: "Horradino ethorriren haiz; ez ordean urrunago!"

Zorionez, ur-erreka tiki bat erasian heldu zen oihanbizkarrari. Berea, suari harek egiten baitzion ezin iraganen zuen muga hezka. Erreka haren hunaindian, oihan-zainek hola manaturik, eman ziren gizonak oro, beren sardi, pala eta ostaila<sup>25</sup> bustiak eskuan. Bere sotana gerriraino altxaturik, bikario gaztea aldean eman zitzaioten.

Jaun erretora ere nahi izan zen moldatu heien erdian. Erremugandekoa ez bezalako ostaila handi bat eskuan, han zagon, tente potente, bertzeck egiten zutena berak egiten zuelako ustekerian. Bainan, Piarresck, frango maiteki kendu zion ostaila izigarria, eta bertzeak oro, hirriz, oihuka eman zitzaizkon: "Ez, jaun erretora, ez! Ez zinakike! Bego lana guretzat. Nehork min har baleza halere, atsegin dugu gurekin hor baitzitezke. Herriko erretorik egundaino ez ahal da ikusi Erreka-Luzen edo Zirikolatzen, su hiltzerat hola ethorri erretorik bederen..."

Haize-hego burrunba izigarri batean heldu zen bizkitartean sua, su bat zinez lazgarria. Oihanak, han, imitua<sup>26</sup> bezalako zilo handi bat egiten ere zuelakotz, itsaso bat erranen zintuten. Dena su, dena gar, dena khe! Haizcak bultaka kurtzen zituen su-lama ikaragarriak, eta gero, berriz, ametz handienak baino gorago altxatzen ziren, erhoak, ziztuka, ortzi ilhun ilhun baten karraska berarekin. Berhoak, sasiak, ametz gazteak, haitz-zaharrenak berak, errabian inguratuak ziren, setiatuak alde orotarik eta gero xirtxikatuak, iretsiak, burdin-olhetan lur ilhunak erakitzen<sup>27</sup> ohi diren bezala. Ifernua ez othe zen, han, zilo handi hartan?

33. IZAN. Régime indirect. Indicatif Imparfait.

He k ziren = ils étaient Pluriel

Zue k zintzen = vs étiez.

He k = (eus) zitzaizkitan = (à moi) = ils m'étaient  
 " zitzaizkizun = (à vous) = ils vous étaient  
 " zitzaizkion = (à lui) = ils lui étaient  
 " zitzaizkion = (à nous) = ils nous étaient  
 " zitzaizkizuen = (à vous) = ils vous étaient  
 " zitzaizkien = (à eux) = ils leur étaient

Zue k zintzen = vs étiez  
 " zintzaizkitaten = 1  
 " zintzaizkietan = 2  
 " zintzaizkizuten = 3  
 " zintzaizkieten = 4  
 1. à moi = vous m'étiez  
 2. à lui = vs lui étiez  
 3. à nous = vs nous étiez  
 4. à eux = vs leur étiez

③ ADITZ IKASKUNTZA

- |                   |                  |
|-------------------|------------------|
| 31. Suntsi zadien | 32. Zioten       |
| 33. Zitzaiion     | 34. Ez zinakike  |
| 35. Har baleza    | 36. Baitzitezke. |

31. IZAN. Subjonctif imparfait

Ni izan mundadin = que je fusse  
 Hi " hindadin = que tu fusses  
 Zu " zintzen = que vous fussiez  
 Hura " zadin = qu'il fût  
 Gu " gintzen = que nous fussions  
 Zue k " zintzen = que vous fussiez  
 He k " zitzen = qu'ils fussent.

32. UKAN. Conj. à dble cplt. Indic. Imparfait.

Objet. Sing. - Cplt Indir. Sing. Hari = à lui.  
 Nik nion = je le lui avais  
 Zue k zinion = vs le lui aviez  
 Hare k zion = il le lui avait  
 Gue k zinion = ns le lui avions  
 Zue k zinioten = vs le lui aviez  
 Heie k zioten = ils le lui avaient  
Neri = Eni = à moi

Erraiten nion =  
 =  
 Je le lui disais

Zue k zin autan = vs me l'aviez  
 Hare k zautan = Il me l'avait  
 Zue k zin autaten = vs me l'aviez  
 Heie k zautaten = Ils me l'avaient  
Zuri = à vous  
 Nik nauzun = je vous l'avais  
 Hare k zauzun = il vous l'avait  
 Gue k gin auzun = ns vous l'avions  
 Heie k zauzuten = ils vous l'avaient

Erranen zin auzun =  
 =  
 Nous vous l'aurions dit